



**Eztabaidarako
dokumentoa**

ehbildu



1. SAR HITZA

EH Bilduk ordezkutzen duen kultura eta alderdi politiko desberdinen arteko ekintza-batasuna oso gertakari garrantzitsua izan da gure herrian, eta era berean Euskal Herri burujabea, justua eta bake-tsua lortu nahi duten pertsona guztien eskutan dagoen tresna eraginkorra izan da.

Egindako ibilbidearen balantzea erabat positiboa da. Hutsegite politikoak egin ditugula eta koalizioaren barne-kudeaketan akats nabarmenak izan ditugula inola ere ahaztu gabe, azkenaldian gure herriko gertakari politiko nagusietan lehen mailako eragile izan gara. Gertakari horiek garai politiko berri bat ireki dute, eta erabateko burujabetasunaren, justizia sozialaren eta bakearen bidean aurrerantz jarraitzeko baldintzak sortu dituzte.

Zailtasunak izan arren aberasgarria izan den bidea egin ondoren, honaino iritsi gara. Bide horrek ikasteko, hobetzeko, eboluzionatzeko eta heldutasuna lortzeko aukera eman digu. Orain, bost urteko ibilbidea egin ondoren, EH Bildu berritzeko eta partizipatiboagoa, irekiagoa eta inklusiboagoa izateko akordioa ahalbidetu zuten oinarriak berritzeko garaia iritsi zaigu. Beraz, alderdi subiranista eta aurrerakoien aliantza politiko-instituzionala berriz definitzeko eta, ondorioz, indartzeko garaia da. Aliantza horrek erabakitze eskubidea baliatzeko aukeraren alde egiten du, eta behetik eta ezkerretik eraikuntza nazionala eta gizarte-eraldaketa lortzeko formula eta pertsona guztien eskubide sozialak, ekonomikoak, politikoak, kulturalak eta hizkuntzari lotutakoak bermatzeko tresna izango da.

Ziur gaude euskal herritarren gehiengoa datorrela bat helburu horiekin eta herrialde aske, justu eta demokratikoa eraikitze asmoarekin. Proiektu horren garapenean alderdi aktibo izan nahi duten milaka pertsona horiei parte hartzeko gune eta era berriak eskaintzeko garaia dugu.

Gaur egun, EH Bildu, koalizioa sortu zuten eta osatzen duten alderdiez bestelako espazio politiko gisa sendotu da, eta alderdi horien batura baino gauza zabalagoa da. Horregatik, jautzia egin nahi dugu eta lau indar politikoren koalizioa izatetik ideia eta proiektu berriak eta alderdi jakin bati lotuta egon behar izango ez dutenak ekarriko dituzten pertsona eta sektore independenteak ere barnean hartzen dituen subjektu politikoa izatera igaro nahi dugu. Ez dugu galdetu nahi gutariko bakoitza nondik gatozen, baizik eta denok elkarrekin nora joan nahi dugun.

Bestalde, hala gatazka konpontzeko prozesuan izandako aurrerapenek, estatu espainiarraren eta frantsesaren jarrera obstrukzionista eta saboteatzailea izan den arren, nola Eskozian eta Katalunian dagoen subiranotasun-boladak, gure herriari beste aukera-leiho bat zabaltzen diote, eta hori erabat aprobetxatu nahi dugu.

Horrek guztiak kontratu berria egin beharra dakar, EH Bilduren egitura eta funtzionamendua nahiz praxis politikoa errealitate berrira egokitzeko aukera emango duena.

2. EH BILDU BERRIA, BURUJABETZAREN ETA DEMOKRAZIAREN ALDEKO ALIANTZA ESTRATEGIKOA

Globalizazio neoliberalaren agertoki historikoan aurkitzen gara, egunez egun ametsgaiztorik ilunak errealitate bihurtzen ari zaizkigun garai konplexu eta arriskutsuetan. Azelerazio momentu historiko batean egon gaitezkeenaren sentipena indartuz doa gainera, krisi egoera orokorraren testuinguruan eragin planetarioa duten gertakari politiko eta sozialak kateatzen baitira, arrisku handiak eta itxaropen printzak trentzatuz.

70. hamarraldian ekin zitzaion aro neoliberalari, kapital metaketa izugarriak eragindako errentagarritasun arazoei kapitalismoaren hirugarren krisi organikoa ekarri zutenean. Lanaldi oso eta orokorreko gizarte antolamendua eta eskubide sozialen bermea ikurtzat zituen ongizate estatu keynesiarraren eraisketari ekin zitzaion orduan. Zergak jaitsi eta zorpetzea igoz kapital finantzarioari erabateko nagusitasuna aitortu zitzaion, eta gobernua merkatuen menpeko bihurtu ziren gainzorpetzearen eta bideraturiko politiken ondorioz. Harrezkero, kapitalismoa herritarrak eta herrialdeak inolako mugarik gabe merkatuen nahikeriaren objektutzat dituen mundu-sistema anker bihurtu da inoiz baino gehiago, arrakala politiko, ekonomiko eta kulturalak areagotuz.

Demokraziaren kontrako ofentsiba

Testuinguru honetan demokraziaren pribatizazio orokorra gertatu da. Izan ere, neoliberalismoa demokraziaren kontrako ofentsiba baita funtsean, Estatuak elite ekonomiko eta finantzieroen diktadura makurtzen dituena. Azken hamarraldietan programa estatalen eta funtzio publikoen pribatizazioa sustatu da, eta interes pribatuak gailendu dira politika publikoen eremuan. Halaber, etengabeko hazkundean oinarritzen den globalizazio neoliberalak gizadia bera arriskuan jarri du. Horren adierazle dira krisi ekologikoa, zaintzaren krisia, hizkuntzen desagertzea edota balioen krisia.

Tartean neurrigabeko krisi politikoa bizi dugu, instituzio nagusiek zilegatasuna galdu dutelarik herritarren begietara. Nazionalismo xenofoboa eta faxismoa ate joka ditugu Europa zaharrean, baina baita, zorionez, ekintza ziklo kolektibo berri baten baitan koka genitzakeen prozesu emantzipatzaileak ere; Occupy Wall Street edota 15-M kasu, eta indar bereziz Eskozia eta Kataluniako prozesu independentistak. Horiek guztiak burujabetzaren aldeko prozesuak dira funtsean, herritarren eta herrien erabakimena berreskuratzea helburu dutenak justizia sozialean aurrera egiteko ezinbesteko urrats gisa.

Testuinguru hurbila

78ko erregimenaren egiturazko krisiak ezaugarritzen du hein handi batean krisi globala gurean. Edo, beste era batera esanda, 78ko erregimenaren krisia da gure testuinguru hurbilean krisi globalaren adierazpen nagusia. Paradoxikoa irudi lezakeen arren 78ko erregimen honen zimenduek Euskal He-

rrian aro historiko bat bukatzearekin batera egin dute eztanda. Ondorioz, Kataluniako olatu independentista zein krisi ekonomikoaren ondorio sozialak agortu den ziklo historiko baten biharamunarekin nahasi dira Euskal Herrian, eta horrek egoera berezi xamarrean kokatu gaitu herri gisa, zorrotz aztertu beharrekoa aurrerabideak pentsatzeko orduan.

Batetik, alor ezberdinei erreparatuz gero –euskaingintzari, autogobernu sistemaren garapenari, kulturagintzari, kooperatibagintzari edota hezkuntza komunitateari, adibidez– nabarmena da garai bateko loraldiek sortutako inertzien agorpena. Zikloen itxierak berez dakarten krisian gaude murgilduta herri gisa hainbat alorretan, paradigma zaharrak kuestionatzen eta bide berrien bilaketan.

Bestetik, hamarkada luzeetako gatazka politikoak ezaugarri propioak dituen euskal demos bat konfiguratu du. Ondorioz, joera globalen eragin bortitza ukatu gabe, azken urteotan ezarri diren austeritatean oinarritutako politika neoliberalagoek, maiz Madrileko gobernuaren aitzakipean, klaseen arteko arrakala areagotu du eta gero eta abiadura handiagoarekin hedatzen ari da; guzti honek, aberastasuna berbanatzeko ditugun bitartekoak ahultzearekin batera - kasu politika fiskalak eta bereziki sistema publikoa-, pobrezia eta bazterketa sozialaren portzentaiak inoiz ezagutu ditugun kopururik altuenetan izanez gainera.

Alabaina, euskal gizarteak baditu ezaugarri propio batzuk espainiarrarekin alderatuz gero: dinamismo handiagoko ehundura soziala, kohesio sozial handiagoko gizarte zibila –antolakuntza eta mobilizazio gaitasuna–, klase ezberdintasun txikiagoko egitura soziala, etab. Hori dela eta, krisi politikoak –instituzioen eta mediazio egituren zilegitasun eza– erlatiboa da gurean Espainiarekin alderatuz gero. Baldintza zehatz hauek ondo neurtzea funtsezkotzat dakusagu estrategiak eta antolakuntza ereduak proposatzerako orduan.

Aliantza estrategikoa

Bi ondorio nagusi atera ditzakegu testuinguru honi erreparatuta:

- Ez dago Espainian errotiko demokratizazio prozesu errealik abiatzeko baldintza historikorik.
- Autonomismoaren zikloa agortu da. Ez dago Euskal Herriaren behar eta aukeren arabeko marko autonomikorik. Herri honek krisiari aurre egin eta garapen bide berriak jorratzeko tresnak eta erabakimena behar ditu, burujabetza alegia. Eta burujabetze prozesu bakarra da posible Euskal Herrian: estatu propio baten eraikuntza, Euskal Errepublikaren eraikuntza alegia.

Bada, horretarako, Euskal Bidea proposamena eguneratuz, sakonduz eta zorrotzuz, estrategia eta ibilbide konfederalista bat proposatzen dugu. Ibilbide konfederalistak euskal estatugintzaren oinarritzko demos gisa hartzen ditu EAE, Nafarroa eta Ipar Euskal Herria, eta proposatzen du hiru eremu horiek estatu bilakatzea erritmo eta bide propioen arabera, hirurek batera Euskal Errepublika Konfederala osatzeko, zeinean estatu erabakitzaileak izango baitira hirurak, besterik erabakitzen ez bada. Izan ere, ezin da ukatu gure herriak estatu bateratuaren hautua egiteko duen eskubidea. Nolanahi ere, es-

trategia konfederalista estrategia bakarra da guretzako, erritmo ezberdinen arabera eta berariazko bideetatik ibiliko dena, estrategien estrategia, nolabait esateko, baina estrategia bakarra, estatuen estatu bakarra eraikitzea helburu duena.

Guztiarekin, honako erronka politikoa hartzen du bere gain EH Bilduk: Euskal Herriaren burujabetza-ren aldeko aliantza estrategikoa osatzea. Zehazki, esparru politiko-instituzionalean aritzeko ezkerre-ko indar abertzale eta soberanistak artikulatuko dituen subjektu politiko berria eraikitzea. EH Bilduk Euskal Herriaren estatalizazioan eta jendarte eredu justuago baten eraikuntzan kalitatezko urratsak emateko tresna izan nahi du, ez bakarra, baina bai nagusietako bat; lurralde, alor, mugimendu, borroka, sentsibiltate eta asmo ezberdinak artikulatuko dituena, fragmentazio joerak gaindituz egitasmo ilusionagarri integral batean, etorkizunaren oinarria herritarron autoeraketan jarrita, erreferentzia gisa burujabetza, errotiko demokratizazioa, feminismoa eta jendarte ereduaren eraldaketa harturik.

Zehazki, EH Bilduk honako konpromiso hauek hartzen ditu bere gain:

1. Giza eskubide ooren defentsa
2. Aukera berdintasunaren defentsa eta bermea
3. Bizi eta lan baldintza duinen defentsa.
4. Emakumeek pairatzen duten diskriminazioaren kontrako ofentsiba. Era berezian, indarkeria matxistaren forma guztien kontrako jarduna.
5. Elkarbizitza eredu demokratiko eta justuagoaren aldeko ekimena, gatazkaren ondorioen inguruan, aniztasunaren kudeaketan eta praktika kolektiboen bultzadan.
6. Euskal Herriaren euskalduntzean estadio berriak irekitzeko jarduna.
7. Hiru lurralde-eremuetako burujabetze eta estatalizazio prozesuetan aipatutako guztia bideratzeko ezinbestekoak diren urrats sendoak emateko ahalegina, herri gisako kohesioa eta aktibazio soziala indartuz.

Egitasmo honek hiru euskal tradizio politikoren bategitea eskatzen du halaberrez. Ezker abertzaleak, abertzaletasun historikoak eta ezkerreko soberanismoak misio bat dute fase politiko honetan: aliantza estrategiko honen gidaritzara beraien gain hartzea, noiz eta garai oso berezi batean; Euskal Herrian estatu eraikuntzan aurrera urratsak emateko baldintzak biderkatu direnean –Nafarroan aldatetaren gobernuak, Ipar Euskal Herrian Lurralde Elkargoa, Erkide Autonomikoan erabakitze esku-bidearen aldeko gehiengo sozial eta instituzional garbia–, Kataluniak independentziaren bidea hartu duenean, 78ko erregimenaren arkitektura gainbehera datorrenean, Eskoziak bigarren erreferendumen aukera mahai gainean duenean, Irlanda batuaren aldeko prozesua azkartuko denean, Europar Batasunaren etorkizuna ezbaian dagoen garai ziurgabeen edota gizadia bera arriskuan jarriko duen globalizazio neoliberalaren aroan.

Gero eta sektore gehiago bildu

EH Bilduk herritar eta sektore gehiago biltzeko bokazioa izan du abiatu zen unetik, eta asmo hau berretsi nahi dugu, uste baitugu gure egitasmoa gehiengoaren interesen arabera dela eta atxikimendu berriei esker aberastuko dela etorkizunean. Gure nahia, beraz, EH Bildun jende eta sektore gehiago biltzea da. Hala nola:

- Jendarte eredu injustuaren zama pisutsuena pairatzen duten herritarrak, emakumeak, bizi baldintza prekarioenetan bizi direnak, etorkinak, langabeak, etorkizunik gabe utzi nahi dituzten gazte belaunaldiak.
- Hamaika borroka eraldatzaile eta eraikitzailetan dabiltzan herritarrak, gizarte zibil autoantolatuen dinamizatzaile eta motor direnak.
- Bere burua abertzale gisa aurkeztuz menpekotasuna errotzen duten agintari politikoaren jardueraz zapuztuta dauden sektoreak.
- Demokratizazio aukerak estatu mailako aldaketan kokatu ondoren itxaropen hori zapuztuta ikusi duten lagunak. Konbentziturik gaude, gurean ere, 15-M gisa ezagutu den haserre leherketa soberanismoaren bidetik etorriko dela berandu baino lehen, horixe baita aldaketaren bide egingarria, eta finean, inoiz baino argiagoa baita burujabetzan eta aniztasunaren errespetuan oinarritzen diren lotura kolektiboen indartzea dela jendarte justuagoa eraikitzeko bidea.

3. EH BILDU BERRIA, URRATS SENDO ETA AUSARTAK EMATEKO ITUNA

Ordezkaritza bitarteko klasikoen krisia

Azken urteetako demokraziaren aurkako ofentsibak gizarte antolamendu modernoaren oinarriko zutabeak eraitsi ditu, eta ondoriozko indibidualizazio liberalak jendartearen lurzoru kulturala eraldatzeraino ahuldu ditu gure ehundura komunitarioak –pertenentzia zentzua, helburu kolektiboeko identifikazioa, bulkada asoziatiboa edota autoantolaketarako sena-. Ondorioz, ezagutu ditugun bitartekaritza formek –alderdiak, sindikatuak, instituzio ordezkatzailleak– sinesgarritasuna galdu dute herritarren begietara. Aurrez esan bezala, Euskal Herrian krisi sozial eta politiko hau erlatiboa bada ere, ukaezina da jendarte joera global nagusiek geroz eta eragin bortitzagoa dutela gure artean.

Sistema politikoaren gaitasuna eta eraginkortasuna ezbaian dagoen honetan, subjektu politiko eraldatzaileen praktika eta antolakuntza ereduena gaineko eztabaida zahar berria urgaineratu da indar biziz; herritar mugimendu, alderdi eta instituzioen funtzio, muga eta dialektiken gaineko zalantzak. Funtsean, parte hartze zuzenaren –mugimendua– eta ordezkaritza bidezko parte hartzearen –alderdia, instituzioa– arteko tentsio teoriko eta praktikoa nola ebazten den. Hortxe kokka.

Testuinguru honi erantzun behar dio EH Bilduren berregituraketak. Garai konplexu hauetan burujabetzaren eta demokraziaren aldeko aliantza estrategikoa gorpuztuko duen subjektu politiko berria eraikitza goaz; bizia, identitate propioduna, irekia, inklusiboa, parte hartzailea eta demokratikoa. Horrenbestez, ziurgabetasunak ezaugarritutako eskenatoki historiko honetan, datozen urteetan sortuko diren baldintza politiko, sozial eta kulturaletara egokitzeko gaitasuna izango duen konfigurazio malgu eta ebolutibo bat hobesten dugu. Alderdien arteko koalizioa izatetik mugimendu politiko anitz eta zabal bat izatera pasako da EH Bildu.

Itun berria

Orain artean EH Bilduren ardura alderdiena izan bada –zuzendaritza guneei eta hautes-zerrenden osaketari dagokionez–, hemendik aurrera alderdiek herritarrekin batera elkarbanatuko dute EH Bilduren erabakimena. Konfigurazio honek alderdi abertzale eta soberanisten eta ezein alderdi edo egituraren bitartekaritzarik gabe EH Bildun parte hartzen duten herritarren arteko ituna izango du oinarrian.

Sinetsita gaude bi espazioen osagarritasunak eta elkarlanak proiektua aberasten dutela, eta aniztasuna –eta bere kudeaketa– eta lankidetzaren funtsezkoak direla tamainako aliantza baten eraikuntzan. Alderdien eta herritarren espazioak –biak ala biak– handitzea izan behar da EH Bilduren bokazioa, biak baitira beharrezkoak.

Bestalde, itun berri honek zera eskatuko du, alderdiek (EH Bilduk osatuko duen espazio amankomun horretatik aparte) beren diskurtso, perfil eta espazio propioak mantentzen eta indar ditzala, horren alde apustu egiteak EH Bilduren espazio amankomuna bera ere indartuko duela sinetsita baikaude.

Oinarrizko Akordioa, Ildo Politiko Orokorra eta Programa Politikoa

EH Bildu berri honek hiru zutabe nagusi izango ditu: Oinarrizko Akordioa, Ildo Politiko Orokorra eta Programa Politikoa. Oinarrizko akordioak EH Bilduren izaera eta oinarri ideologikoak jasotzen ditu. Ildo Politiko Orokorra, izenak dioen bezala, Euskal Herrirako proposamen estrategikoak. Programa Politikoak, aldiz, Oinarrizko Akordioaren nahiz Ildo Politiko Orokorren inplementaziorako neurri eta proposamen zehatzak biltzen ditu, finean proposamen politikoaren zein hauteskunde programen bitartez gorpuzten direnak. Hirurak ere berrikusterako orduan EH Bildu osatzen dugun guzti-guztiok aintzat hartu beharko dugu kultura politiko ezberdinen arteko topagunea dela aliantza hau, eta hortxe datzala hain zuzen kontu handiz zaindu beharreko EH Bilduren indargune nagusietako bat. Beraz, kontsentsu bilaketarako borondateak ardaztu beharko ditu eztabaida prozesuak. Hau da, EH Bildu osatzen dugun alderdi eta pertsona ezberdinen arteko izendatzaile komun txikiena bilatzeko ardurarekin egin beharko diegu aurre guztiok eztabaida prozesuei, jatorri ezberdineko ondare politiko eta intelektualen elkarlanak aberasten baitu, hain zuzen, burujabetzaren eta demokraziaren aldeko eskaintza politikoa.

Ezin daiteke beste era batera izan. Izan ere, fase politiko honek beharrezko duen burujabetzaren eta demokraziaren aldeko aliantza zabal honetan posizio politiko eta ideologiko ezberdinek elkarbizi behar baitute halaberrez. Bi aukera egon litezke aberastasun horren kudeaketarako: homogenizazio politiko eta ideologikoaren mesedetan, konpetentziaren bidez, posizio horietako batzuk nagusitzea besteak itzaleratuz. Edo, aliantzaren identitatea izendatzaile komun txikienaren baitan eraikiz eta joku arauak ondo finkatuz, berau osatzen dugun partaideon aniztasun politiko eta ideologikoari askatasuna ematea, partaideon arteko kooperazioa lehenetsiz –aniztasuna erreprimitzea antinaturala delakoan, baina batez ere bere adierazpena balio positibotzat ulertzen dugulako–. Bigarren aukera hau hobesten dugu.

Bilkideak

Bilkideek osatuko dituzte EH Bilduren erabakigune nagusiak, hots, EH Bildun izena ematen duten pertsonak. Kide bat bozka bat, horretxek beharko du erabakiak hartzeko oinarrizko printzipioa. Hala, Ildo Politiko Orokorra eta Programa Politikoa bilkideen arteko eztabaida irekira eramango da, euskal herritarrei aurkeztuko dizkiegun proposamen politikoak nahiz hauteskunde prozesu ezberdinetan aurkezteko osatuko ditugun programak modu irekian eztabaidatuz eta bozkatuz. Oinarrizko Akordioaren berrikuspenak, aldiz, aliantzaren beraren izaerari eta oinarri ideologikoei eragingo liekenez gero, EH Bildu berria osatuko dugun guztion arteko akordio berri bat eskatuko du; alegia, alderdiak bere baitan bilduko dituen adostasun berri bat.

Eraikuntza prozesu graduala

EH Bildu berriaren eraikuntza prozesu gradual gisa ulertu behar dugu. Momentu fundazional honek abiapuntua eskainiko digu –lurzorua eta zimenduak–, eta erronka ezberdinei aurre eginez joango gara etxea zatirik zati eraikitzen. Lehen urrats honetan tresna berriaren definizio orokorra osatuko dugu, martxan jartzeko barne antolakuntza eta funtzionamendu berri bat definitu -nazio eta herrial-

de mailan; herri mailako berrantolaketari udazkenean ekingo diogu-, eta mandatu tasatu bat –datozen lau urteetan EH Bildu berria eraikitzea– izango duen zuzendaritza aukeratu. 2019ko Udal eta Foru hauteskundeak dira zerumugan zain dugun hurrengo erronka potoloa.

EH Bildu berri honen joku arauak estatutuetan jasoko dira, eta erronka ezberdinei aurre egiten goazen heinean joango gara araudien bidez estatutu horiek zehazten. Etorkizun hurbilean gutxienez hiru araudi osatu beharko ditugula aurreikus genezake:

- Erabakiak hartzeko prozedurak arautuko dituena Ildo Politiko Orokorrari zein Programa Politikoari dagokienez.
- Hautes-zerrendak osatzeko prozedurak arautuko dituena.
- EH Bildun alderdi, sektore edo korrante berriak barneratzeko modua arautuko duena.

Halaber, epe laburrean honako erronka politikoei egin beharko die aurre EH Bilduk:

- Instituziogintza eredu eraldatzailea pentsatu eta garatzea, udalgintza oinarri hartuz.
- Hiriguneetako –eta bereziki Bizkaiko metropoliko– posizionamendua eta interbentzio ereduak birpentsatzea.
- EH Bildu eredu konfederalera nola hurbildu diseinatzea –barne funtzionamenduari zein kanpo harremani dagokienez–.

Berrikuntza etengabea

EH Bildu berri honi eman diogun konfigurazio politiko-organizatiboa zein bere eraikuntzarako proposatu dugun prozesu eredu soluzio berritzaileak direlakoan gaude, testuinguru historiko ziurgabeari aurre egiteko proposamen malgu eta dinamikoak. Bizi dugun krisi politiko eta sozialari Euskal Herriko baldintza zehatzetatik heltzeko aukerak ireki ahal dituena eta Euskal Herrian justizia soziala, burujabetza osoa eta bakea erdiesteko subjektu politiko berria artikulatzeko tresna izan daitezkeenak.

4. EH BILDU BERRIAREN IZAERA, FUNTZIOAK, ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA

4.1. Izaera

EH Bildu berria nortasun eta militantzia propioak dituen subjektu politiko bat da, koalizio baten forma, alderdi baten egitura eta mugimendu baten izaera dituen, eta, horrenbestez, hiru tradizio organizati- bo horien ezaugarriak barnebiltzen dituena: koalizioen aberastasun ideologikoa, alderdi-egituren era- ginkortasuna, eta mugimenduen horizontaltasuna eta parte hartzailetasuna.

4.2. Funtzioak

EH Bildu berriak lau zeregin nagusi dauzka:

- **Ildo Politiko Orokorra jorratu:** EH Bilduk Euskal Herrirako proposamen politiko orokorrak eskeini behar ditu. Era berean koiuntura politikoari behar bezala erantzun behar dio, eta kanpaina eta dinamika politiko zehatzak garatu, mobilizazioak barne.
- **Programa Politikoa jorratu:** Programa Politikoa etengabe landu behar du EH Bilduk: ez- tabaidatu, erabaki, inplementatu, berriz ere eztabaidatu... Horretarako, prozesu iraunkor eta irekia jorratu behar du. Bilkide guztiek izango dute aukera prozesuaren fase guztietan parte hartzeko. Era berean Programa Politikoaren eztabaida eta gauzatzea eragile sozial eta sindikalekin jorratuko dugun harremanaren zutoin nagusia izango da.
- **Hauteskundeak landu:** Argi dago hauteskundeak berebiziko garrantzia dutela, institu- zio bakoitzean lortuko dugun ordezkariak markatuko duelako hein handi batean izango dugun eragiteko indarra, beti ere aintzat hartuz instituzioak ez direla lan eremu bakarra. Bada, hauteskundeen lanketa ere modu iraunkorren egin behar da: analisi demoskopi- koak, hautagai ezberdinek izan lezaketen harreraren eta arrakastaren neurketa, kanpai- nen prestaketa... EH Bildu berria hauteskunde makinaria potentea izan behar da.
- **EH Bilduren militantziaren trebakuntza integrala:** Bilkide eta militante oro, gobernuan zein oposizioan, Udaletxeetan, Parlamentuetan eta abarretan ditugun eta izango ditugun hautetsiak trebatu behar ditu EH Bilduk. Maila teorikoan eta praktikoan. Era berean, urtee- tan instituzio ezberdinetan izan ditugun esperientzia on eta txarrak gure kapital politikoar- en parte inportante bat dira eta ezin ditugun galtzen utzi.

4.3. Militantzia

EH Bilduko militante (hemendik aurrera, Bilkide) izango da 18 urte baino gehiago izanda, EH Bildun izena ematen duen edozein pertsona, EH Bildu osatzen duen alderdiren bateko kide izan edo ez.

EH Bilduko erabakietan parte hartzeko Bilkide izan beharra dago.

Nolanahi ere, EH Bilduk Bilkide ez diren pertsonen parte hartzea bultzatuko du bere ekimenetan, baita ere eztabaida eta erabaki batzuetan, hartarako "ad hoc" inskripziorako aukera emanaz.

Bestalde, Bilkideak ezin izango du beste alderdi politikoren bateko afiliatu izan, ez bada EH Bildu osatzen duten alderdiren batekoa, noski.

Diasporaren partaidetza

Azkenik, EH Bilduk gure herrialdeko mugetatik kanpo bizi direnei ere aukera eskeiniko die Bilkide izateko, eta euren parte hartze efektiboa bideratzeko beharrezko neurri eta bitartekoak bideratuko ditu.

Kuota

Bilkideek kuota ordaindu beharko dute. Bi motatako kuotak izango dira: osoa eta murrizta. EH Bildu osatzen duten alderdietako afiliatu ez diren Bilkideek kuota osoa ordaindu beharko dute. EH Bildu osatzen duten alderdietako afiliatu diren Bilkideek nahiz egoera sozio-laboral jakinetan aurkitzen direnek, berriz, murrizta (osoaren %50a).

4.4. Alderdiak eta sektore politikoak

Lau dira egun EH Bildu osatzen duten alderdiak: Sortu, Eusko Alkartasuna, Aralar eta Alternatiba. EH Bilduren alderdi fundatzaileak.

Nolanahi ere, alderdi edo sektore politiko berriek EH Bildun sartzeko atea irekiak dauzkate. Prozesu hori nola gauzatu zehaztu beharko dugu, horretarako beharrezko araudia osatuz eta onartuz.

4.5. Ordezkaritza, gobernu eta administrazio organoak

EH Bildu berria alderdi politikoek eta Bilkideek osatuko dute. Alderdi politikoek ordezkaritza bana izango dute Hegoalde nahiz Herrialde mailako zuzendaritzetan (Mahai Politikoa), ordezkaritza horien batuketan, gehienez ere, zuzendaritza horien kide kopuru totalaren %50 izan ahal izango delarik.

Bestalde, alderdi fundatzaileen ordezkaritza banak Alderdien Mahaia osatuko du, zeinaren oniritzia ezinbestekoa izango den erabaki jakin batzuk hartzeko.

Hala, erabakiak, orokorrean, Bilkideen esku egongo dira, Bilkide bat bozka bat printzipioa ardatz, baina badira erabaki batzuk, euren garrantzia bereziagatik, onarpen bikoitza beharko dutenak, alderdien eta Bilkideen onarpena, alegia. Erabaki horiek dira:

- Oinarrizko Akordioaren eta, ondorioz, estatutuen berrikuspena.
- Alderdi nahiz sektore politiko berrien inkorporazioa.
- Beste alderdi politiko batzuekin hauteskunde koalizioa egitea.

Hiru gai horien inguruko erabakiek Alderdien Mahaiaren gehi Kongresuaren (Oinarrizko Akordioaren berrikuspena) edo Batzar Orokorraren (alderdi politiko berrien inkorporazioa eta hauteskunde koalizioak osatzea) oniritzia beharko dute aurrera egiteko.

Bestalde, hauteskunde zerrenden osaketari dagokionez, prozedura zehatza finkatu beharko den arren, honako kriterio orokorra erabiliko da, EH Bildu osatzen duten sentsibiltate politiko guztien ordezkari-tza minimo bat bermatze aldera:

- Instituzio nagusien kasuan (Europar Parlamentua, Espainiako Kongresua eta Senatua, Gasteizko eta Iruñeako Legebiltzarrak, eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Batzar Nagusiak) hautagaien %50a Alderdien Mahaiak izendatuko ditu, eta beste %50a (horien artean zerrendaburua) Bilkideek aukeratuko dituzte, barne hauteskunde bidez.
- Udal hauteskunde kasuan, berriz, zerrendaburua herriko Bilkideek aukeratuko dute barne hauteskunde bidez, gainontzeko hautagaiak propio osatutako hautes-zerrenden komisio batek proposatu eta Herriko Batzarrak berretsi beharko dituelarik, banan-banan berretsi ere. Hautes-zerrenden komisio hori osatuko lukete, batetik, herrian presentzia duen EH Bilduko alderdi politiko bakoitzeko ordezkari banak, betiere, alderdi horiek bi edo gehiago baldin badira; bestetik, Herriko Batzarrak hautatutako beste horrenbeste Bilkidek; eta, azkenik, zerrendaburuak.

4.5.1. Plano orokorreko ordezkari-tza, gobernu eta administrazio organoak

Kongresua

Erabaki-gune gorena. Bilkide guztiak nahiz, kasuan (hartarako aukera ematea erabakiz gero), espresuki izena emandako pertsona guztiak bilduko dituena.

Bere eskumenak dira:

- Hegoaldeko Mahai Politikoa hautatu.
- Oinarrizko Akordioa berretsi.
- Alderdi berrien inkorporazioa berretsi.
- Ildo Politiko Orokorra erabaki.
- Koalizio elektoralak berretsi.

Kongresua lau urtean behin egingo da ohiko izaeraz.

Ez ohiko Kongresua deitzeko prozedura arautu behar da, baina, printzipioz, hortarako eskumena luketen organoak lirateke: Alderdien Mahaia eta Batzar Orokorra (Mahai Politikoaren edo finkatu beharko den Bilkide kopuru baten proposamenaz).

Batzar Orokorra

Kongresu arteko erabaki gune nagusia.

Bi formatu ezberdin izango ditu:

- **Unibertsala.** Lehenetsiko duguna. Bilkide guztiei nahiz, kasuan (hartarako aukera ematea erabakiz gero), espresuki izena emandako pertsona guztiei irekia.
- **Delegatua.** Herrietako Batzarrek aukeratuko lituzketen delegatuek hartuko lukete parte. Herri bakoitzak aukeratu ahal izango lituztekeen delegatu kopurua herri horretako Bilkide kopuruaren arabera izango litzateke.

Nolanahi ere, Batzar Orokorraren eskumenak dira:

- Joandako ikasturte politikoaren balantzea onartzea eta ikasturte politiko berriari begirako jarduera plana finkatzea.
- Ez ohiko Kongresua deitzea.
- Beharrezko egokitzapen organizatiboak egitea, hala nola, Mahai Politikoan jazo ahal izan diren bajak ordezkatzeko eta Mahai Politikoko kideen aurka aurkeztu ahal izan diren errebo-kazio eskaerak ebatzea.
- Estatutu hauek garatuko dituzten araudiak onartzea.
- Hauteskunde zerrendak osatzeko prozedurak onartzea.
- Europar nahiz Espainiar hauteskundeetarako hautagaiak erabakitzea.

Batzar Orokorra, ohiko izaeraz, gutxienez urtean bitan elkartuko da: kurtso hasieran eta ikasturte politikoan zehar.

Ikasturte hasieran egingo dugun Batzar Orokorrak Konferentzia Politikoaren izaera izango du.

Eskumenei erreparatu ezker, Batzar Orokorraren ahalmen berak izango ditu, baina formato berezia izango du. Izan ere, ohiko hausnarketa, eztabaida eta erabaki hartze formalei, hitzaldiak, ekimen kulturalak, esposaketak eta halako eskaintza irekiak gehituko baitzaizkie.

Mahai Politikoa

EH Bilduren zuzendaritza organoa.

Bere eskumenak dira:

- Kongresuan eta Batzar Orokorrean (nahiz Konferentzia Politikoa) hartutako erabakiak gauzatzea.
- EH Bilduren barne zein kanpo jarduera gidatzea.
- EH Bilduren ordezkaritza.
- EH Bilduren harreman politikoen kudeaketa.

Asteroko maiztasuna izango du, eta, printzipioz, astelehen goizetan bilduko da.

Mahai Politikoaren osaketa:

- Koordinatzaile Orokorra
- Zuzendari Nagusia
- Programa Zuzendaria
- Komunikazio Zuzendaria
- Barne Antolaketako Zuzendaria
- Nazioarteko Zuzendaria
- Arabako Arduradun politikoa
- Bizkaiko Arduradun Politikoa
- Gipuzkoako Arduradun Politikoa
- Nafarroako Arduradun Politikoa
- Nafarroako Parlamentuko Koordinatzailea
- Nafarroako Parlamentuko bozeramailea
- EAeko Parlamentuko Koordinatzailea
- EAeko Parlamentuko Bozeramailea
- Espainiar Kongresuko/Senatuko ordezkaria
- Europar Parlamentuko ordezkaria
- Alternatibako ordezkaria
- Aralarreko ordezkaria
- Eusko Alkartasunako ordezkaria
- Sortuko ordezkaria
- Koordinatzaile Orokorraren idazkaria (bozka eskubiderik gabe)
- Zuzendariaren idazkaria (bozka eskubiderik gabe)

Mahai Politikoaren Idazkaritza

Mahai Politikoaren organo betearazlea.

Bere zeregina izango da Mahai Politikoak hartutako erabakiak exekutatzea.

Asteroko maiztasuna izango du, eta, printzipioz, astelehen arratsaldetan bilduko da.

Idazkaritzaren Osaketa:

- Zuzendari Nagusia
- Programa Zuzendaria
- Komunikazio Zuzendaria
- Barne-antolaketako Zuzendaria
- Instituzio nagusietako Koordinatzailea
- Arabako Arduradun Politikoa
- Bizkaiko Arduradun Politikoa
- Gipuzkoako Arduradun Politikoa
- Nafarroako Arduradun Politikoa
- Koordinatzaile Orokorraren idazkaria
- Zuzendari Nagusiaren idazkaria

Alderdien Mahaia

Alderdi Fundatzaileen (Alternatiba, Aralar, Eusko Alkartasuna eta Sortu) ordezkari banak osatuko duten markoa.

Arestian esan bezala, EH Bilduk har litzakeen erabaki batzuk onarpen bikoitza beharko dute; bate-tik, Kongresuarena edo Batzar Orokorrarena, eta, bestetik, Mahai Politikoarena, hain zuzen.

Horrez gain, Alderdien Mahaiaren eskumenak dira:

- EH Bilduri (Kongresuari, Batzar Orokorrari edota Mahai Politikoari) proposamenak egitea.
- Ez-ohiko Kongresua deitzea.

Berme Batzordea

Bere zereginak dira:

- Estatutoak eta araudiak betetzen direla zaintzea
- Bilkideen eskubideak errespetaraztea

Bost lagunek osatuko dute, ez EH Bildun ez EH Bildu osatzen duten alderdietan ardura organikorik ez dutenak.

Kontu Batzordea

EH Bilduren aurrekontu orokorren eta diru sarrera eta irteera ororen -bai kanpo eta baita barne iturrietarik eratorritakoak ere- erabilpen zuzenaren eta legalaren azken bermatzailea izango da.

Hiru lagunek osatuko dute.

Koordinatzaile Orokorra

Koordinatzaile Orokorren zereginak dira:

- EH Bilduren bozeramale nagusia izatea. Gai zentralen gainekoa. Ez da Bozeramaile bakarria izango, lan eremuen eta gaien arabera bozeramaile talde zabala jardungo baita berarekin batera.
- EH Bilduren ordezkari nagusia izatea, bai Euskal Herriko bai nazioarteko harremanetan. Ez da ordezkari bakarria izango, lan eremuen eta gaien arabera ordezkari talde zabala jardungo baita berarekin batera.
- Nazioarteko Zuzendariarekin batera Nazioarteko harremanen kudeaketa egitea.

Ondoko bat izango du berarekin batera lanean, harremanen eta agendaren kudeaketaz arduratuko dena.

Zuzendari Nagusia

Zuzendari Nagusiaren zereginak dira:

- Mahai Politikoaren, Idazkaritzaren eta, oro har, egitura osoaren koordinazioa.

Zeregin horietan laguntzeko ondoko bat izango du, zeinaren esku egongo den barne komunikazioa.

Zuzendari Nagusiak zazpi lan-esparru nagusi kudeatu beharko ditu. Lan-esparru horietako bakoitzak arduradun edo Zuzendari bat izango du: Programa Zuzendaria, Komunikazio Zuzendaria, Barne Antolaketako Zuzendaria, Nazioarteko Zuzendaria, Hauteskunde Zuzendaria eta Gobernantza eta Formakuntza Zuzendaria.

Hauteskunde Zuzendaria eta Gobernantza eta Formakuntza Zuzendaria ez dira Mahai Politikoan egongo, gainontzekoak bai.

Zuzendari bakoitzak lan-talde propioa osatzeko aukera izango du, bere lan eremuak dituen beharren arabera.

Programa zuzendaria

Bere zeregin nagusia izango da Programa Politikoaren osaketak, mamitzeak eta inplementazioak eskatzen duen koordinazio lana egitea.

Bere ardurapena egongo dira zeregin horrekin lotura estua duten honako lan-eremuak eta arduradunak:

- **Arloen Koordinatzailea:** Bere zeregina Programa Politikoa arloka elikatu eta eragileekin harremana kudeatzea izango da. Hori behar bezala egin ahal izateko 16 Idazkaritza osatuko dira. Idazkaritza bakoitzak arduradun edo Idazkari bat izango du, eta Arlo edo Sektore jakin baten inguruko beharrei erantzungo dio, hau da, Arlo horren inguruko gogoeta-gune nagusia izango da, Programa Politikoa osatu eta elikatzeko gunea, eta baita ere eremu horri loturiko eragileekin harremana kudeatzeko gunea. Idazkaritza bakoitzak lantalde desberdinak izango ditu, eta, guzti guztiek, Idazkariak gain, EA Erako eta Nafarroarako erreferentzia politikoak nahiz politika ezberdinak esparru administratibo bakoitzera itzultzeaz arduratuko lirakeen azpi-lantaldeak izango dituzte. 16 Idazkaritza horiek lirakeke:
 - Ekonomia Idazkaritza
 - Estatugintza Idazkaritza
 - Askatasun Demokratikoak Idazkaritza
 - Politika sozialak Idazkaritza
 - Ingurumen Idazkaritza
 - Lurralde Antolaketa Idazkaritza
 - Hezkuntza Idazkaritza
 - Osasungintza Idazkaritza
 - Hizkuntza Idazkaritza
 - Kultura Idazkaritza
 - Feminismoko eta Sexu eta Genero askatasuneko Idazkaritza
 - Gazte Idazkaritza
 - Adindunen Idazkaritza
 - Kultur Aniztasun Idazkaritza
 - Diaspora Idazkaritza
 - Parte Hartzea – Gobernantza Idazkaritza
- **Udalgintza Arduraduna:** Politika municipalistaren garapenerako arduradun politiko nagusia. Udaletxe eta udal mailako ekinbideaz arduratu, elikadura politiko eta teknikoak bermatu eta ildo orokorraren traslazioa udal mailako politikara bideratu eta bermatzen duena. Egitura eta udalen arteko zubia.
- **Instituzio nagusietako Koordinatzailea:** Idazkaritzan egongo da. Instituzio nagusietan ekinbide politiko orokorra bideratzeaz arduratuko da, mozioak edota ekimen instituzionalak bideratuz, baita ere instituzioetako eztabaida politikoek sortzen dituzten korapiloak askatzeko irizpideak. Ekintza Politiko – Instituzionalaren Zuzendariarekin eta, batez ere, Arloen Koordinatzailearekin eskuz-esku egin beharko du lan.

Komunikazio Zuzendaria

Bere zereginak izango dira:

- EH Bilduren barne zein kanpo komunikazioa antolatu eta kudeatzea.
- Prentsa-lana kudeatzea.
- Diskurtsoa eta irudia iraunkorki lantzea.

Barne antolaketa Zuzendaria

Hiru zeregin nagusi izango ditu:

- Diruzaintza eta bitartekoen kudeaketa.
- EH Bilduren indartze organizatiboa.
- Arazo politiko-organizatiboen kudeaketa.

Nazioarteko Zuzendaria

Lan eremu honek bi lan esparru nagusi barnebiltzen ditu: nazioarteko harremanak eta nazioarteko politika.

Lehena Koordinatzaile Orokorrekin batera jorratuko du Nazioarteko Zuzendariak.

Bigarrena zeharkako gaia da, EH Bilduren proiektu politikoa hezurmamitzen duten gai askorekin zerikusia duena, eta, ondorioz, izaera horretako lanketa eskatzen duena.

Hauteskunde Zuzendaria

Bere zereginak izango dira:

- Iritzi-egoeren, boto-intentzioaren nahiz, oro har, datu demoskopikoen etengabeko analisisia egin.
- Hautagaiak erabakitze prozedurak landu, hautagaiak prestatu, gizartean ezagunak egin.
- Hauteskunde kanpainak alde aurretik prestatu, hauteskundeak iritsitakoan makinaria guztia prest izan dadin.
- Ez da zuzendaritza markoetan egongo, ez bada hauteskunde gaiak lantzeko edo hauteskunde garaietan.

Gobernantza eta Formakuntza Zuzendaria

Bere zereginak dira:

- Oro har, militantziaren formakuntza politikoa.

- Espezifikoki, hautetsien formakuntza tekniko-politiko; dela herri txikien dela instituzio handien gobernantzak eskatzen duen kualifikazio tekniko eskaintzea hautagai nahiz hautetsi guztiei.
- Bai EH Bilduren bai instituzioen gobernantza-ereduen gainean hausnartzea, eta berau hobetzeko neurriak jorratu eta proposatzea.

Programa Politikoarekin, Komunikazioarekin eta Udalgintzarekin elkarlanean aritu arren, bere jarduna egunerokotasunetik at kokatuko da, eta, hori dela eta, ez da ez Mahai Politikoan ez Idazkaritzan egongo, ez bada bere ardurapeko gairen bat landuko delako.

4.5.2. Herrialdeko planoko ordezkartza, gobernu eta administrazio organoak

Herrialdeko Batzarra

Herrialde mailako erabakigune gorena, herrialdeko Bilkide guztiek osatuko dutena.

Bere zereginak izango dira:

- Ildo politiko orokorra herrialdera itzultzea.
- Herrialderi eskusibo zaizkion gaien gaineko hausnarketak egin eta erabakiak hartzea.
- Herrialdeko Arduradun Politikoa nahiz, oro har, Herrialdeko Mahai Politikoa aukeratzea.
- Foru hauteskundeetarako hautagaiak aukeratzea.

Herrialdeko Mahai Politikoa

Herrialde mailako zuzendaritza.

Bere zereginak dira:

- Herrialde mailako ildo politikoa planifikatu eta dinamizatzea, ildo politiko orokorra deklinatuz eta berau herrialde mailako lan ildoekin osagarrituz.

Bere osaketa da:

- Herrialdeko Arduradun politikoa
- Hiriburuko arduraduna
- Herrialdeko Udalgintza arduraduna
- Batzar Nagusietako bozeramailea
- Batzar Nagusietako koordinatzailea
- Alderdi bakoitzeko ordezkari bat

Bere maiztasuna bi edo hiru astean behingoa izango da, beharren arabera.

Herrialdeko Idazkaritza

Herrialdeko Mahai Politikoaren organo exekutiboa.

Bere osaketa izango da:

- Herrialdeko Arduradun Politikoa
- Hiriburuko arduraduna
- Herrialdeko Udalgintza arduraduna
- Batzar Nagusietako koordinatzailea

Bere maiztasuna asterokoa izango da.

4.5.3. Plano lokaleko ordezkartza, gobernu eta administrazio organoak

Arestian esan bezala, herri mailako berrantolaketari udazkenan ekingo badiogu ere, herrietan nahiz hiriburuetan honako markoak izatea aurreikusten da:

Herriko / Hiriburuko Batzarra

Herri / Hiriburumailako erabakigune gorena, herriko / hiriburuko Bilkide guztiek osatuko dutena.

Bere zereginak izango dira:

- Ildo politiko orokorra herrira / hiriburura itzultzea.
- Herriari / hiriburuari eskusibo zaizkion gaien gaineko hausnarketak egin eta erabakiak hartzea.
- Herriko / hiriburuko Arduradun Politikoa nahiz, oro har, Herriko / hiriburuko Mahai Politikoa aukeratzea.
- Udal hauteskundeetarako hautagaiak aukeratzea.

Herriko Mahai Politikoa

Herri / hiriburu mailako zuzendaritza.

Bere zereginak dira:

- Herri / hiriburu mailako ildo politikoa planifikatu eta dinamizatzea, ildo politiko orokorra deklinatuz eta berau herri / hiriburu mailako lan ildoekin osagarrituz.

Hautetsi taldea

Herri / hiriburu bakoitzeko udaletxean dauden EH Bilduko zinegotziez osatua.

Talde Munizipalista

Aukeran, herri bakoitzaren indarren arabera.

Zinegotziez eta herriko / hiriburuko dinamika sozial ezberdinetan dauden pertsonaz osaturiko lantaldea. Udal mailako lan instituzionalaren kudeaketa (gobernuan zein oposizioan) aurrera eramango duena. Herri programa lantzeaz eta hari loturiko proposamenak Herri Batzarrera eramateaz arduratuko dena.

4.5.4. Beste gune eta bitarteko organizatibo batzuk

Emakumeen Gunea

Emakumeen Gunea, emakume Bilkideek parte hartzeko eremua, premisa feministetatik emakumeen ahalduntzea sustatzea helburu duena.

Emakumeen gunea eta Feminismoko eta Sexu eta Genero Askatasuna Idazkaritza arteko harremana zehaztu beharra dago.

Gazte Eremua

EH Bilduk Gazte eremua behar edo ez duen behar hausnartu beharra dago, zentsu berean balizko gazte eremua eta Gazte Idazkaritza arteko harremana zehaztu beharko litzateke.

Plataforma Telematikoa

EH Bilduk plataforma telematiko indartsu bat garatuko du, zeinak, besteak beste, honako aukerak eskainiko dituen:

- Erreferendumak egin ahal izatea telematikoki.
- Bai Kongresuek bai Batzar Orokorrek estentsio telematiko bat izatea eztabaidei zein erabakien hartzeari dagokienez.
- Bilkideen arteko nahiz EH Bilduko aparatu organizatibo ezberdinen arteko norabide anitzeko komunikazioa.
- EH Bilduren ezagutza esplizitoaren nahiz inplizitoaren kudeaketa.

Erreferendumak

EH Bilduk erreferendumak egin ahal izango ditu garrantzia bereziko erabakiak hartzeko bai Mahai Politikoaren bai arautu beharko den Bilkide nahiz EH Bilgune kopuru jakin baten proposamenez.









**Herritarron
neurria**

—
**Sumar
para avanzar**

ehbildu

Prozesu
Eratzailea

Proceso
Constituyente